



ALKATE DEKRETUA

Nik, Izaro Elorza Arregik, Oñatiko Alkate naizenez eta Toki Korporazioetako Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridiko Erregelamenduak ematen dizkidan ahalmenetan oinarrituz, ondorengoa agintzea erabaki dut:

Informatikako laguntzaile lan-poltsarako hautaketa-prozesuko oinarri arautzaileetan aldaketak

2019ko urriaren 9ko alkate dekretu bidez, besteak beste, honako hau erabaki zen: Oñatiko Udaleko Informatikako laguntzaile lanposturako lan-poltsa sortzeko hautaketa-prozesurako deialdia egitea eta oinarri arautzaileak onartzea.

Arau horietan aldaketa batzuk egitea beharrezkoa da, konkretuki Bosgarren eta Bederatzigarren ataletan.

Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 legearen 21.1g) atalak ematen dizkidan eskuduntzak erabiliaz,

ERABAKITZEN DUT:

Lehenengoa: 2019ko urriaren 9ko alkate dekretu bidez, Oñatiko Udaleko Informatikako laguntzaile lanposturako lan-poltsa sortzeko hautaketa-prozesuaren oinarri arautzaileetan aldaketa hauek egitea:

1.- Bosgarren atalean, honakoa jartzen duen lekuan:

- "...Nortasun agiriaren fotokopia"

Honakoa azaldu behar du:

- "... Nortasun agiriaren fotokopia edo parekagarri den identitate egiaztagiria, eta beharrezkoa denean, aipatutako senidetasunaren bat egiaztatzen duen dokumentua ere.

2.- Oinarrien Bederatzigarren atalaren, a) *Lan eskarmentua* puntuaren gaztelarazko bertsioan honakoa azaltzen da:

- "*La experiencia laboral en el desempeño de funciones relacionadas con la participación ciudadana...*"

Honakoa azaldu behar du:

- "*La experiencia laboral en el desempeño de funciones relacionadas con las funciones del puesto...*"

3.- Bederatzigarren atalaren b) Prestakuntza osagarria puntuan honakoa dio:

“ Lanpostuaren edukiarekin zerikusirik duten egindako graduatu- ondoko unibertsitate-ikastaroak edo unibertsitate batek emandako master-ikastaroak; gehienez ere 2 puntu. Erakunde ofizial batek antolatutako prestakuntza-ikastaroak, jardunaldiak, etab. baloratuko dira, 0.01 puntu ordu bakoitzeko. Alor honetan, gehienez ere 2,5 puntu lortu ahalko dira.”

Eta honakoa azaldu behar du:

“Lanpostuaren edukiarekin zerikusirik duten egindako graduatu- ondoko unibertsitate-ikastaroak edo unibertsitate batek emandako master-ikastaroak; gehienez ere 2 puntu. Erakunde ofizial batek antolatutako prestakuntza-ikastaroak, jardunaldiak, etab. baloratuko dira, 0.01 puntu ordu bakoitzeko.

Prestakuntza osagarriari dagokion alorrean, gehienez ere 2,5 puntu lortu ahalko dira.”

Bigarrena: aldaketa hauen berri udalaren iragarki-taulan, web orrian eta Gipuzkoako aldizkari ofizialean ematea.

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut.

Oñatin, 2019ko abenduaren 10ean.

The image shows a circular official stamp of the Oñati Town Council (Oñatiko Udala). The stamp contains the text 'OÑATIKO ALKATEGUA UDALA' around a central emblem. Overlaid on the stamp is a handwritten signature in black ink. To the right of the signature, the word 'ALKATEAK' is printed in bold capital letters. Below the signature, the name 'Izaro Elorza Arregi' is printed in bold capital letters.

ALKATEAK
Izaro Elorza Arregi